



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko ekainaren 7ko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, ekainaren zazpian, zortziak eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregulartasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatua zena : AYÇAGUER Elorri.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : CHAMALBIDE Corinne

Deialdiaren eguna : 2022ko ekainaren 3a

Afitxatze eguna : 2022ko ekainaren 3a

1.ERABAKIA DENBORA OSOKOA EZ DEN ANIMAZIO ORDEZKO LANPOSTU BATEN SORTZEA

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio ludotekarako animazio ordezkoko lanpostu iraunkor baten sortzea, denbora ez osokoa, ludotekako joko maileguren kudeatzeko eta publikoari harrera egiteko.

Asteko lan denbora batez beste 4 orenekoa litzateke.

Enplegu hori C kategoria hierarkikoan kokatzen da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen da:

Enplegua	Dago(z)kion gradua(k)	Kategoria hierarkikoa	Aurrekontuko zenbatekoa	Asteko batezbesteko lan denbora	Kontratupeko kontratatzearen zioa
Ludotekako animazio ordezkoko	Animazio ordezkoko	C	1	4 h	Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L. 332-8 5° artikulua

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzten,

- baimen berezi gisa, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 5° artikulua arabera, kontratupeko langilea izan daiteke, enplegu horrek lurralde erakunde edo egitura publikoetan lanpostu iraunkorra betetzen duenean, baldin eta asteko lan denbora lan denbora oso baten %50etik beherakoa bada (hots, 17:30 oren baino gutiago).

Lan kontratuek, gehienez behin errepika daitekeen hiru urteko iraupenekoak izan behar dute, hots gehienez sei urte segidan. Sei urte horien buruan kontratua luzatzen bada, orduan erabaki arin batez mugagabea bilakatuko da.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 387ko indize gordina izanen luke.

Hala balitz, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, animazioko lurralde funtzionario ordeentzat finkatu bezala, eta 2015eko ekainaren 23ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren arabera.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak,

ERABAKI DU

- 2022ko agorrilaren 1etik goiti, lurralde animazio ordezko lanpostu iraunkor eta denbora partzialeko baten sortzea, batez beste astean 4 orenekoa,

- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko da,

- kontratupekoa izaten bada, enpleguan 387ko indize gordina izanen du.

BAIMENA EMAN DIO eranskinean den lan kontratua izenpetzeko,

ONARTU DITU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainera egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko ekainaren 7an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/06/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/06/14an.